

BILBOKO UDALAK 523 ESKAERA JASO DITU TERRAZA BERRIAK IPINTZEKO EDO LEHENDIK BAIMENDUTA ZEUDENAK HANDITZEKO

- Epea joan den maiatzaren 11n hasi zenetik, Uriko 446 ostalarik eskatu dute terraza handitzea eta 77-k eskatu dute terraza berri bat jarri ahal izatea.
- Espazio Publikoaren Zuzendaritzak azertu eta sailkatu ditu dagoeneko 447 eskaera. Horien artetik, guztira, 320-ri emango zaie baimena.
- Baimen berriak itxialdia arintzeko 2. fasean hasiko dira eragiten.
- Terrazak handitzeko edo berriak jartzeko eskabideak aurkezteko epea ez da oraindik amaitu.

(Bilbo, 2020ko maiatzaren 22an).- Joan den maiatzaren 11n epea hasi zenetik –eta atzo arte, maiatzak 21, 12:00etan–, **Bilboko Udalak 523 eskabide jaso ditu guztira, dela terrazak handitzeko edo berriak ipintzeko**. Zehazki, 77 eskaera erregistratu dira terraza berriak ipintzeko, eta 446 eskaera terrazak handitzeko.

Horien guztien artean, **Espazio Publikoaren Zuzendaritzak dagoeneko azertu eta sailkatu ditu 447 eskaera, jasotakoen % 85,5**. Eta dagokion azterlana egin ostean, erabaki da 320 eskaerari baimena ematea, eta, aldiz, beste 127 eskaerari ezezkoa eman zaio. Baimenduta izango direnak, 240 espaloian dira (17 berriak eta 223 lehendik baimenduta; eta, 230, 4 metro baino gehiagoko espaloiei buruzkoak eta 10, 4 metro baino gutxiagoko espaloiei buruzkoak); eta, 80 galtzadan edo aparkaleku-bandan (58 berriak eta 22 lehendik baimenduta).

Bestalde, baimena ukatzeko funtsezko arrazoia da –ia kasu guztietan– espazio fisikorik eza edo seinaleztapen horizontalarekin bat etortzea, terraza bat jartzea edo handitzea bideraezina egiten baitu.

Barrutika, Abando (%38,83), Alde Zaharra (%18,44%) eta Deusto (%12,23) izan dira Udalari eskaera gehien egin dizkiotenak.

Baimen berriak, beraz, itxialdia arintzeko 2. fasea hastearekin hasiko dira eragiten.

NEURRI SALBUESPENEZKO ETA IRAGANKORRAK

Bilboko Udalak egokitu egin du bere araudia, ostalaritzako terrazak egokitasunez ireki daitezen ostera ere, apurka-apurka, sektorea nahitaez itxi behar izan ostean COVID-19 krisiarengatik. Xede horrekin, zenbait **neurri salbuespenezko eta iragankor** onetsi ditu, ostalaritzaren sektorea osasun krisiarengatik jasaten ari den kalte larria arintzearen, Udalak ahal duen neurrian.

Itxialdia arintzeko 1. fase honetan, terrazak ipintzeko baimena eman zaie baimena indarrean zuten tegiei. Gainera, mahai-kopuru bakoiti baterako bazen baimena, % 50eko mugaren aplikazioa modu zabalean aditu da. Hau da, tegiak bost mahai bazeuzkan baimenduta, hiru jarri ahal izan ditu.

Lehenengo fasean ez da terraza berririk baimendu. Hala ere, izan da aukera instalazio berriak ipintzeko edo instalazioen azalera handitzeko eskabideak aurkezteko. Aukera hori gero ere izango da, 2. eta 3. faseetan zehar.

Eskabide hori egiteko, dagokion orri-eredua bete behar da eta posta elektronikoko bidez bidali Bilboko Udalaren Espazio Publikoaren Zuzendaritzari (espaciopublico.up@bilbao.eus) edo Bizkaiko Ostalaritza Elkartearen Zuzendaritzari. Era berean, Bilbao Dendak (info@bilbaodendak.eus) eta BilbaoCentro (tecnico@bilbaocentro.com) elkartearen bidez ere bideratu ahal izango dira.

EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO HA RECIBIDO 523 SOLICITUDES DE INSTALACIÓN DE NUEVAS TERRAZAS O DE AMPLIACIÓN DE LAS YA AUTORIZADAS

- Desde que se abrió el plazo, el pasado 11 de mayo, 446 hosteleros de la Villa han solicitado la ampliación de su terraza y 77 han pedido poder instalar una nueva.
- La Dirección de Espacio Público ha estudiado y clasificado ya 447 peticiones. De ellas, se van a conceder un total de 320 autorizaciones.
- Las nuevas autorizaciones empezarán a tener vigencia con el inicio de la Fase 2 de desescalada.
- El plazo de solicitud sigue abierto para solicitar la ampliación o la instalación de nuevas terrazas.

(Bilbao, 22 de mayo de 2020).- Desde que se abrió el plazo, el pasado 11 de mayo, y hasta ayer jueves 21 de mayo a las 12:00 horas, **el Ayuntamiento de Bilbao ha recibido un total de 523 solicitudes entre ampliaciones de terraza y nuevas instalaciones.** En concreto, se han registrado 77 peticiones de nuevas terrazas y 446 de ampliaciones de superficie.

De todas ellas, **la Dirección de Espacio Público ya ha estudiado y clasificado 447 peticiones, el 85,5 % de las recibidas.** Tras el pertinente estudio, **se ha decidido autorizar 320 peticiones,** mientras que 127 serán denegadas. De las que serán autorizadas, 240 son en acera (17 nuevas y 223 con autorización previa; y, 230 en aceras de más de 4 metros y 10 en aceras de menos de 4 metros) y 80 en calzada o banda de aparcamiento (58 nuevas y 22 con autorización previa).

Por contra, la razón de la denegación, prácticamente en todos los casos, es la falta de espacio físico o la coincidencia con señalización horizontal, que hace inviable la instalación o ampliación de una terraza.

Por distritos, Abando (38,83 %), Casco Viejo (18,44 %) y Deusto (12,23 %) son los que más peticiones han trasladado al Ayuntamiento.

Las nuevas autorizaciones entrarán en vigor coincidiendo con el primer día de la Fase 2 de desescalada.

MEDIDAS EXCEPCIONALES Y TRANSITORIAS

El Ayuntamiento de Bilbao ha adaptado su normativa para una adecuada y progresiva reapertura de las terrazas de hostelería tras el cierre obligado del sector

por la crisis del COVID-19. Con ese objetivo, ha adoptado una serie de **medidas excepcionales y transitorias** que tratan de paliar, dentro de las posibilidades del Consistorio, la situación de quebranto económico que la situación sanitaria está acarreado al sector hostelero.

En esta Fase 1 ha permitido la instalación de terraza a aquellos establecimientos que tuvieran una autorización en vigor. Además, en el caso de tener autorizado un número impar de mesas, la aplicación del 50 % se ha entendido al alza. Es decir, si el local tenía autorizadas cinco mesas, ha podido montar tres.

Durante la Fase 1 no se han autorizado nuevas terrazas, aunque sí se ha podido presentar solicitudes de nuevas instalaciones o de ampliación de la superficie destinada a ellas. **Una posibilidad que continuará abierta igualmente durante las Fases 2 y 3.**

Para realizar dicha solicitud deberán cumplimentar el modelo correspondiente y presentarlo por correo electrónico a la Dirección de Espacio Público del Ayuntamiento de Bilbao (espaciopublico.up@bilbao.eus) o a la de la Asociación de Hostelería de Bizkaia (terrazasbilbao@asociacionhosteleria.com). Asimismo podrá tramitarse a través de Bilbao Dendak (info@bilbaodendak.eus) y BilbaoCentro (tecnico@bilbaocentro.com).